

**“Natura suntsitu eta merkantzia bihurtzearen aurka
mugimendu ekologistak darabilen borrokak badu antzik
giza lan-indarra esplotatzearen eta merkantzia bihurtzearen aurka
langile-mugimenduak
betidanik darabilen borrokarekin”**

Jorge Riechmann. “Suntsiketak gabeko lana”

HITZAURREA

Ekosindikalismoaren esanahia azaltzea du helburu nagusi lan honek, hau da, sindikalismoaren eta ekologismoaren arteko uztarketaren zergatia adieraztea.

Jakina, ekosindikalismoa ez da hutsetik sortua; hainbat ekologista eta ezkerreko jenderen hausnarketa eta lanaren ondorio da. Mugimendu sozialen herentzia intelektuala eta analisi-ikuspegia oinarri harturik, langileen eta ingurumenaren interesak elkarrekin lotzen saiatzen da jende hori, bi alderdi horien lankidetzarako diagnostikoa eta estrategia bateratzen. Ez da, ez, lantegi erraza XXI. mende honen hasierak dakarkiguna.

Amerikartu egin da euskal gizartea, Mendebaldeko gainerako gizarteak bezala, eta merkatuaren menpeko bihurtu dira gure produzitzeko eta kontsumitzeko erak ere. Homogeneizatu egin garela, alegia.

Kapitalismoaren globalizazio-prozesu neoliberaletan luze baten emaitza da bihurtze hori. Lan-eremuan, komunikabideetan, kulturen eta kontsumoan nabaritzen da globalizatzea, eta ez du gelditzeko itxurarik.

Egia da prozesu horri esker ‘gehiago daukagula’ gure gizarteko jende gehienok: produktu gehiago eskuratzen ditugu, eta bizi-maila hobea dugu (kontuz gero, bizi-maila eta bizi-kalitatea ez dira-eta gauza bera!). Hala eta guztiz ere, ez dugu ahortzi behar galtzaileak ere badituela prozesuak: gizartetik baztertuta edo behin-behinekotasunean bizi diren herritarren heren hori, batetik, eta natura, bestetik, gure bizimoduaren oinarritzko euskarria. Horra gure bizimodu honetako galtzaileak. Gero eta material eta energia gehiago inportatu behar ditu gure gizarteak, gero eta zerbitzu gehiago sortu behar ditu kapitala eta kontsumitzaileak erakartzeko. Euskal Herriatik kanpo, berriz, munduaren Hegoaldean, askoz ere latzago-



ak eta beldurgarriagoak dira gure sistema ekonomiko bidegabe honen ondorioak.

Argudio hori abiapuntu hartuta ekingo diogu gure lanari, mugimendu sindikalaren eta ekologismoaren arteko desadostasunak eta biak elkartzeko leudekeen lotuneak bilatzeari, jakinik, betiere, zaila dela uztarketa, arrazoi historikoak, kulturalak, ideologikoak eta politikoak direla medio.

Inozokeria litzateke, bestalde, ez ohartzea ikuspegi eta korrante ekologista asko dau dela, XXI. mende honen hasierako Mendebaldeko ezker zarpailduan dauden bezainbat korrante eta ikuspegi, gutxienik.

Herri txikia garen arren, ibilbide oparoa eginak dira gure mugimendu sindikala eta ekologista. Saia gaitezen, beraz, geure ekarpen txoa egiten bi jarduera soziopolitiko horien arteko uztartze-lanari. Baliagarri izango ahal zaizkie proposamen hauek hibridatze eta elkar aberaste horri. Hemen irakurriko dituzun hauek ideiak dituzu, ez dogmak. Gure errealitatearen hainbat ikuskerak dira, ekologismoaren aldera gehiago jotzen dutenak mugimendu sindikalerantz baino, neure ibilbidea dela eta. Eztabaida eta kritika (konstruktiboa) eragitea dute xede ideioiok. Badago zer egina, lagunok, eta eztabaidarako, ideia-trukerako eta aurrera egiteko gogorik behintzat ez zaigu falta.

HAZKUNDEA ETA GARAPENA EZ DIRA GAUZA BERA: SINDIKALISTEK ETA EKOLOGISTEK ONGI BEREZIK BEHAR DITUZTE BI KONTZERTU HORIEK

Ekonomia dugu, zalantzarik gabe, zientziarik eta lehia-eremurik estimatuena, gainerako zientzien nabarmen gainetik, baita politika, erlijio eta kulturaren gainetik ere. Ekonomia kapitalista ortodoxoaren arau sakratua, berriz, hazkunde jasangarria da: hazkunderik gabe ez dago ongizaterik, ezin da enplegurik sortu. Urtean % 3tik gora ez bada hazten ekonomia (hau da, produktibitate-hazkunderen gainetik) gauzak ez dira ongi ibiliko. Hala esaten digute. Bestalde, egunero gogoratzen digute beste hau ere: ekonomia haztea da bide bakarra krisi ekologikoei eta ingurumen-hondamendiei aurre egin diezaiegun baliabideak izateko, pobreei eta baztertuei laguntzeko. Alabaina, datuek besterik diote, hots, gero eta handiagoa dela pobreen eta aberatsen arteko aldea, gero eta natur baliabide gehiago erazten ditugula, gero eta ingurumen-inpaktu handiagoa eragiten duela gure produkzio- eta kontsumo-ereduak.

1980ko hamarkadaren erdialdera, *garapen jasangarria* deritzona modan jarri zuen nazioarteko diplomaziak (Brundtland Txostena, 1987). Denon ahotan dabil aspaldian termino polemiko hori, esanahi oso ezberdi-



nak ematen bazaizkio ere. Izan ere, Iparra eta Hegoa, ekologistak eta multinazionalak, kapitalismoa eta *sozialismo erreala* zeritzona... denak kontentatu nahi izan zituzten, bost urteko kanpaina diplomatiko etengabeaz baliaturik. Lurraren Goi-bileraren ondorenean (Rio de Janeiro, 1992ko ekaina) hasi zen ezaguna bihurtzen terminoa. Ordea, politikari, enpresaburu eta irakasleei berdin zaie garapen jasangarria esan edo garapen iraunkorra, hazkunde jasangarria edo hazkunde iraunkorra. Egiazki axola diena da etengabe haztea ekonomia (hitza-ren diru-adieran betiere, hots, merkatuari begira), BPG eta salmentak haztea... Gainerakoa, diote, bere kasa etorriko zaigu.

Beste zientzia batzuek –biologiak, adibidez– dioskute kontzeptu ezberdinak direla hazkundea eta garapena, elkarri eskua emanda ibiltzen direla batzuetan eta kontrako norabideetan beste batzuetan. Garapena prozesu bat da; hedapena eta trantsizioa, aldakuntza eta autoantolakuntza eskatzen ditu. Hazkundea, berriz, magnitude bat da, gehikuntza aritmetikoa, zenbakizkoa, fenomeno neurgarriei lotua.

Pertsona bat ez da hazten lagunak egiteagatik, herrialdeak eta paisaiak ezagutzeagatik, hizkuntzak, kankak edo teknikak ikasteagatik, baina bistakoa da garatzen laguntzen diola horrek guztiak, nahiz eta gure errenta edo ondarea handitzearekin zerikusi

handirik ez izan gure bizitzako alderdi garrantzitsu horiek. *Izatearekin* daukate zerikusi handiagoa *edukitzearekin* baino, baina gure bizitzako ezinbesteko zati dira.

Ekonomiaren azken helburua ez dela hazkundea baizik eta jendearen ongizatea dio Paul Ekinsek *The Living Economy* liburuan. Ekinsen iritziz, hazkundeak ez dauka zertan beti ona izan berez. Azken hogeitau urteotan egindako gehiegikeria antiekologikoak eta antisozialak aipatzen ditu idazleak horren adibidetzat, eta ondorio hau azpimarratzen: kapitalismoaren metatze-egarriak, kosta ahala kosta hazi beharrak inflazioa eta langabezia ekarri ditu batik bat.

Normalean, gogokoago dute ekologistek *jasangarritasuna* hitza *garapena* baino, nahiago dute substantiboa erabili adjektiboa baino. Izan ere, *garapen jasangarria* sasi-terminoak (*contradictio in terminis*, hau da, hitzean bertan ageri da kontraesana) eta antzekoek lokaztu egiten dute ekonomiaren eta ekologiaren arteko lotura. 1970eko hamarkadaren hasieran bezala, gaur egun ere mesfidantzaz begiratu behar genioke desberdintasun sozialak handitzen dituen hazkunde ekonomikoari. Munduko ingurune jakin batzuetan eta ekonomiaren alor jakin batzuetan bakarrik bultzatu behar litzateke hazkundea, gizartearen gehiengoari onuragarri izango zaion alor eta inguruneetan alegia.



Barry Commoner ekologista-ekonomista estatubatuarrek dioskunez, Bigarren Mundu Gerraz geroztik energia-gastua eta kapital-inbertsioak izugarri hazi dira munduan; enpleguak, berriz, behera egin du etengabe, eta txarrera ingurumenaren osasunak.

Mundu osoan, geure hurbileko ingurumenean eta nazioartean bultzatu beharrekoa da joera horren aldaketa. Horretarako, baina, arazoen sustraira jo behar da, ez bakarrik sintoma kezkarrienak arintzera. Zenbait ikerlanek diotenez (adibidez, Michael Renneren *Enplegu jasangarriak. Munduaren egoera*, 1992. Worldwatch Institute), zerga-politika eta kontabilitate ekologikoak lanpostu gehiago sorraraz ditzakete baldintza hauek betez gero: lanordua gutxitzea; trenbidearen eta garraiobide kolektiboen alde egitea autobide eta autobien alde egin beharrean; eguzki-energia eta energia-aurrezpena bultzatzea; birziklaketa eta produkzio-zirkuitu itxiak sustatzea (lanpostuei eusteko baliagarri dira); monolaborantzaren ordean dibertsitatea hautatzea eta, azkenik, produktu iraunkorrak eta erraz konpontzeko modukoak egitea. Aldaketa hori egiteko, zerga-sistema ekologiararen ikuspegitik aldatzea proposatzen du Rennerrek. Roberto Bermejok uste du, ordea (*Equilibrio ecológico, crecimiento y empleo*, 1994), zerga-politikaren aldaketa ez dela nahikoa, zerga- eta kontabilitate-bitarteko batek bakarrik ezin duelako

emaitza positiborik ekarri enpleguaren eta ingurumen jasangarritasunaren alor konplexu horretara. Bermejoren ustez, politikak erregulatu behar du ekonomia, debeku eta arautzeen bidez ere hala behar izanez gero (adibidez, produktu toxikoen esportazioa, hondakin nuklearrak, desagertzeko zorian dauden espezieak...), produkzio- eta kontsumo-erlazioak aldarazteko.

Etorkizunean, eztabaida gogorak ikusiko ditugu alternatiba sindikalen eta ekologisten artean krisia (ingurumenarena, ekonomikoa, enpleguarena) gainditzeko soluzio-bideak direla eta. Iparrak ezin du jarraitu (ez luke jarraitu behar) hazten eta Hegoa-erikiko aldea handitzen. Hegoa, berriz, hementxe bertan ere badaukagu: Iruñean, Bilboko Zazpi Kaleetan, Sestaoko Txabarrin...

Lehen Munduaren partaide da Euskal Herria. Hemen, munduko beste zenbait lekutan bezala, hazkunde ekonomikoaren alde egin dute ezkerak eta eskuinak, gure gaitzak sendatzeko botika bakarra hori delakoan, inertzia hutsagatik sarritan. *Desarrollismoa* deitzen diogu batzuek jarrera horri.

Ondo legoke gogoratzea, labur bada ere, azken 50 urteotako ziklo ekonomikoak eta haien ingurumen-azterketa egitea. Makina bat kontraesan aurkituko dugu. Hausnartzeko eta norabidez aldatzeko lagungarri izango ahal zaizkigu.



1960ko hamarkadatik aurrera, dirutza handiak irabazi zituzten euskal enpresek. Oparotasun-garaiak ziren haiek, bai ekonomiaren bai enpleguaren aldetik (erabateko enplegua). Urteroko akziodunen batzarretan, irabaziak banatzen zituzten enpresek; bidean, ordea, ibaiak estolda bihurtuta uzten zituzten, bazter guztiak poluituta, langileak auzo penagarrietan bizi ziren... Enpresaburu haien burutik ez zen une batez ere pasatzen teknologia berri, garbiago eta bigunagoetan inbertitzea, ez zitzairen bururatu ere egiten ingurumenari kalte txikiagoa egingo zioten teknologiak erabili beharrik zegoenik. Gure ibaiak, basoak, airea, itsasoa... erabat poluitu ziren; ekosistemen funtzionamendua galarazten zuten instalazioz bete ziren bazter guztiak (horren adibide ditugu sarritan gertatzen diren uholdeak). Horrenbestez, izugarri hazi da gure ingurumen-pasiboa. Hogeita hamar urte badira kasik frankismoa amaitu zela, baina, hala eta guztiz ere, orduetik datorren krisi ekologikoaren ardura bere gain hartua du EAEko egungo herri-administrazioak (lindanoa, harrobiak, ibaiak...).

1980ko industria-birmoldaketa gogor hura igaro zen arte ez zen kontuan hartzen 'ingurumen-gastua' ekonomia-adierazleetan. Urte luzez ur zikinak ibaira isurtzen zituzten paper-lantegi batek –adibidez– ez zuen bere kontuetan sartzen natur baliabi-

deen hondamena. Ondorioz, oso merkea zen bazterrak poluitzea. Urak ez zuen ezer balio, airea pozoitzeak ez zekarren zigorrik, ezta lurzoruak lohi toxikoz estaltzeak ere. Hori guztia ia-ia debaldekoa zen; kontua zen ahalik eta paper- edo kartoi-tona gehien produzitzea, inbertitutako pezeta bakoitzari etekinik handiena ateratzea. Badira hamar urte baino gehixeago jokabide hori amaitu zela. Izan ere, ez zegoen hala jarraitzerik, batez ere Europako legeak eta araudiak bete beharra zegoelako.

Euskal ekonomiaren oinarrizko sektoreetatik (siderometalurgia, papergintza eta kimika) kanpo ere antzekoa izan zen bila-kaera, bai lehen sektorean (harrobiak, abeltzaintza...) bai bigarrengean (automozio- eta makineria-tailerrak...).

Ekonomiaren moteltze-urteak eta desindustrializazioaren aroa gainditu ostean, bai enpresaburuak bai administrazioa ohartuak ziren ez zegoela bide hartatik segitzerik. Enpresaburuei dagokienez, ingurumenak merkatu berrietara iristeko ateak zabaltzen zizkiela eta lehiakorrango egiten zituela ohartu ziren. Hortaz, enpresen lana *berde-tzeari* ekin zioten, administrazioaren laguntzarekin. Ondo asko zekien administrazioak ingurumena zaintzeak (legezko betekizuna izateaz gain) txalo eta boto asko ekarri ohi dituela.



Mende berriaren hastapen honetan, go-goan izan behar dugu zein diren, Euskal Herrian eta Europan, ingurumenari presio gehien egiten dioten faktoreak: garraioa, industria eta kontsumoa. Produkzioan eta gizartearen egin beharreko aldaketa orokorreari eta eskaini beharreko alternatibei buruzko hausnarketa egitera bultzatu behar gintuzke garraio-azpiegituren eta komunikazio-bideen etengabeko hazkundea, Lurra handitzea ezinezkoa zaigunez. Desarrollismoaren kontraesanak eta garapenaren arauak ikusirik, birmoldaketa ekologikorako faktore erabakigarria izan daiteke euskal sindikalismoaren eta ekologismoaren elkarlana. Horren adibide dugu Euskal Herriko trenbide-sareari buruz hainbat sindikatuk eginiko proposamena.

ELKARREN AURKARI EDO ALIATU IZAN DAITEZKE LANGILE-MUGIMENDUA ETA EKOLOGISMOA

K. Marxek, F.Engelsek eta Komunisten Ligako gainerakoek Bruselan *Komunisten*

agiria plazaratu (1848) eta handik bi hamarkadara argitaratu zuen Ernst Haeckelek, Alemanian, *Organismoen morfologia orokorra* obra. Ekologia ekosistemen zientziazat (biologiaren parekotzat) aldarrikatzen lehena izan zen Haeckel. Marxistek ez zuten asmatu klaseen arteko borroka (dezente mende lehenago lehertu zen, lehen estatutak sortzearekin batera), ezta XIX. mendeko ekologo eta zientzialari darwinistek ere ekologismoa (1960ko hamarkadan sortu zen mugimendu sozial hori). Hala eta guztiz ere, bai batzuk bai besteak ezinbestekoak izan ziren –eta dira– pentsamendu ekosindikala eratzeko.

Ondo asko dakigu alde handiak daudela langile-mugimenduaren eta erakunde ekologisten artean: programak, kanpainak, jarduteko eta funtzionatzeko erak (erakundeen barruan eta haietatik kanpo), mezuen hartzaileak...

C. Offe soziologo alemanaren paradigma politiko-sozial berri eta zaharren eredua hartu eta Euskal Herriari aplikatuta, honela moduzko egoera aurkituko genuke:



	ERAGILEAK	EDUKIAK	BALIOAK	FUNTZIONAMENDU
PARADIGMA "ZAHARRA"	Taldearen interesak eta aberastasunaren banaketari buruzko gatazka.	Hazkunde ekonomikoa eta aberastasunaren banaketa.	Kontsumo pribaturako askatasuna eta segurtasuna; aurrerapen materiala.	Antolakuntza formala eta interes korporatibisten aldeko bitartekaritza.
PARADIGMA "BERRIA"	Interes orokorragoak.	Ingurumena, giza eskubideak.	Nortasuna, gizon-emakumeen autonomia.	Horizontaltasuna. Protesta eta Proposamen negatiboak.

Alde handiak daude mugimendu sindikalen eta ekologistaren artean, ikuspegi historikotik eta oro har begiratuta, nahiz eta antzekoak izan biek gizarte kapitalistari aurka egiteko arrazoiak.

Langile-mugimenduaren eta sindikalismoaren iritziz, honako hau zen (eta da) gakoa: nola banatu sortzen den aberastasuna. Azken 60 urteotan, handia izan da hazkunde ekonomikoa, Trumanek Bretton Woodsen (1949) iragarri legez. Hazkunde horri esker jaio zen Estatu Soziala edo Ongizatearen Estatua, justu gaur egun eraitsi nahi duten berbera, kosta ahala kosta hazten segitzeko.

Ekologistek diote sustraietara jo behar dela, auziaren benetako mamia ez dela aberastasunaren azken banaketa, baizik eta zer eta nola ekoizten den, zer eta nola kontsumitzen den, baita banatu beharreko ‘tarta-

ren’ tamaina bera ere. Ekologisten iritziz, ezin da etengabe hazi tarta hori, naturaren mugek hala agintzen dutelako. Jakina, tartaren banaketak ere kezkatzen ditu ekologistak, baina ez dute hori auziaren giltzarritzat, osagaitzat baizik.

Eskertu beharra dago Claus Offeri bere ahalegin taxonomiko eta sailkatzailea, baina ez dugu uste ekologisten eginkizun bakarra sistema kapitalistari ezetz esatea denik, gainerako mugimendu alternatiboen antzera (antimilitaristak, feministak...). Alternatiba ugari aurkeztu izan ditu ekologismoak –beste kontu bat da horiekin bat etortzea, kritikatzea, eztabaidatzea...– eta, sarritan, erakunde publikoek, enpresek eta, zorionez, sindikatuek ere erabiltzen dituzte ekologisten zenbait kontzeptu eta eslogan.

Akziodunen eta gizartearen aurrean naturaren babesle gisara agertu nahi duten



enpresa transnazonaletako harreman publikoetarako bulegoen 'oportunismo berdetik' landa, hainbat gertakarik (historikoak jada, zaharrak ez diren arren) erakusten digute nondik jo behar den justizia soziala eta Ama Lurrarekiko errespetua elkarren eskutik ibil daitezen.

1999ko abenduan, sindikatuen, ekologisten eta beste sektore batzuen (emakumeak, gazteak...) arteko elkarlanari esker irabazi zen Seattleko gatazka. Bizitza soziala merkantzia bihurtu eta pribatizatzeke Munduko Merkataritza Erakundearen asmoei aurre egin zitzaien eta, bide batez, 'saski-naski' tankerako mugimendu berri bat sortu zen, globalizazioaren aurkako mugimendua deritzona. Sindikalistek eta ekologistek elkarrekin jarduten dute mugimendu horretan, bai hitzez bai egitez. Mugimendu gaztea da, aldian behin plazaratzen dena, baina haren jardunbide eta proposamen askok badute zerikusia sindikatuen eta ekologisten jarduerarekin.

Euskal Herrian, ordea, oso bestelakoak dira gauzak. Badira hemen hainbat erakunde sindikal eta ekologista, horietako batzuk ardura sozial eta politikorik ez dutenak eta izango ez dutenak. Hala ere, beti egon da hemen komunikazio eta eztabaidarako

gunerik sindikatuen eta erakunde ekologisten artean, bi arrazoiengatik: batetik, ekologista asko, langile izaki, sindikatuetan ere jarduten direlako; bestetik, oihartzun handiko borroka eta kanpaina ekologistak egin izan direlako (Lemoiz, Leitzarain, Itoiz, Atxarte, Garoña, AHT, erraustegiak ...).

Euskal Herriko Foro Sozialaren eztabaidetan ongi asko ikusi denez, gaur egungo eginkizun nagusia hau da: neoliberalismoaren globalizazio-prozesuei aurre egitearekin batera, globalizazio horren bertako eragileei ere (BBVA, Iberdrola, Eroski, BBK, Sener, MCC...) ekiteko estrategia ekosindikalak, ez bakarrik globalizazioaren ondorioei.

Zer edo zer egin da aurrera alor horretan, baina izugarritzko lana dago egiteko, ikusirik zer nolako 'garapen jasangarriko' plan megalomanoak dakartzkiguten globalizazioaren euskal eragileek (superportuak, kirol-portuak, abiadura handiko trenak, zentro komertzial erraldoiak, autobideak eta autobiak, energia-zentralak, golf-zelaiak, aireportuak...). Plan horiek jasanezinak dira ingurumenaren aldetik bai munduko bai Euskal Herriko herritar gehienentzat, eta euskal gizartearen gutxiengo eta elite batzuen mesederako ari dira diseinatzen.



HARREMAN SOZIOEKONOMIKOEN ETA EKOLOGIAREN KRISIALDIA ARI GARA PAIRATZEN. BATA BESTETIK EZ BEREIZTEA DA EKOSINDIKALISMOA

A. Gramsci pentsalari italiarrak zioenez, mundu zaharra ezin hilik eta mundu berria nagusitu ezinik dabiltzan une historikoa da krisia. Francis Fukuyamak, berriz, *Historia-ren amaiera* iragarri zigun 1999an, The Nation aldizkarian argitaratutako artikulu ezagun hartan. Dena dela, badirudi liberalismo kapitalistak espero baino arazo gehiago aurkitu dituela, bloke sobietarra desagertu ostean, ez bere nagusitasun ekonomiko, kultural edo militarra ezartzeko (hainbat hamarkada baziren hori lortua zuela), baizik eta lehiakide ideologiko eta politikoak ezabatzeko.

Krisi horren adierazle dira, halaber, gerraren erabilpena eta multilateralismoaren haustura. Bikoitza da krisia, nire ustez: harreman sozialena, batetik; naturarekiko harremanena, bestetik. Desberdintasun ekonomikoak eta hondamendi ekologiko larriak areagotzen ari dira aspaldi honetan, eta elkarri loturik dabiltza bi fenomeno horiek.

Lanari dagokionez, aldaketa teknologikoak, birmoldaketak eta birkolokatzeko trauma-tikoak ikusi ditugu azken 20 urteotan. Aldaketa horiek zirela medio, hankaz gora geratu dira lehen eta bigarren sektorea.

Herrialde askotako ekonomiaren zutabe ziren bi sektore horiek, Euskal Herrikoarena, besteak beste.

Aditu batzuen iritziz, poztu egin behar ginateke ekologistok industria eta jarduera horiek desagertzeagatik, poluzio-iturri nagusi omen genituen eta. Bada jenderik Euskal Herrian uste duenik sektore horietako enpleguak desagertzea mesedegarri izan dela ingurumenarentzat eta gizartearentzat, antiekologikoak izateaz gain antiekonomikoak ere ba omen ziren-eta erauzte eta eraldatze industrialeko jarduera horiek. Hala dio merkatuaren ikuspegiak, interesatua betiere.

Gure iritziz, ordea, etekinari gehiago begiratu diote enpleguari eta ingurumen-orekari baino gure herriko garapen industrial diseinatu eta gero haren amaiera erabaki eta, ondoren, aldakuntza teknologikoa eta hirugarren sektorearen nagusigoa bultzatu dutenek. Diskurtsoa edertzeko bigarren mailako balioak besterik ez dira haientzat enplegua eta ingurumena.

Horretaz gain, aldaketa kultural eta sozial handiak eragin dituzte postindustrialismoaren teknologia berriek. Aro postindustrialen ez dira jada ikusten antzinako industria eta langile-kontzentrazio handi haiek. Langileria industrial, berriz, desagertuz joan da, ez bakarrik industriaren birmoldaketek 'berez' eraginda, baizik eta langile askok

‘beretzat’ lortu dituzten bizi-kondizio eta kontsumo-maila handiagatik. G. Luckas pentsalari sozialista hungariarrari hartu diogu azken esaldi hori.

A. Tourainek zioen “langile-mugimendu garaikidearen goraldiarekin batera hasi zen XIX. mendeko plebearen mugimenduen beheraldia. Industrializazio kapitalistaren aurkakoa zen orduan langile-mugimendua. Gaur egun, higitze-prozesu berbera ari da jasaten langile-mugimendua, beste era bateko gizartea osatzen ari den bitartean: teknokratikoa eta kontsumo-gizartea aldi berean. Gizarte berri horren garapenak mugimendu sozial berriak ekarri ditu berekin ...”

Kontraesan eta proposamen berriak ekarri dituzte, izan ere, gizarte industrialeko aldaketek. Politikan ere sumatzen dira, ezker-eskuin, aldaketa sozio-ekonomiko horien ondorioak.

Egoera aldakor horretan sindikatuek eta langileria industrialak darabiltzaten jarrerak eta estrategiak baloratzen ez gara hasiko orain. Dena den, ez dirudi egungo egoera (eskubide sozialen murrizketa, erosahalmenaren murriztea...) oso mesedegarri zaienik diskurtso ekologista ‘berriei’, ezta feministei, antimilitaristei, antiarrazistei edo internazionalistei ere, gutxietsi ere egin behar ez diren arren orain arteko esperientziak eta elkarlanak.

Hona hemen galdera nagusia: ba ote dago egiterik aldaketa sozial sakon eta erradikal irizpide ekologistekin, sindikatuen eta ‘langileria errearen’ onespen eta parte-hartzerik gabe?

Historiak erakutsi digunez, “burgesiaren seme-alabak airearen kalitateaz edo basoko uraren gardentasunaz kezkatzen hasi baino askoz lehenago, langile asko hil ziren, edo betiko ezinduta geratu, ingurune osasungaitzetan lan egiteagatik, poluzioaren aurkako bitartekorik eta teknikarik ez zelako erabiltzen, berehalako irabazia baitzen beti lehentasuna ...” (F. Fernández Buey). Beraz, arrazoi historikorik egon bada, azter ditzagun gaur egungoak ere.

GIZARTEAREN BERRANTOLAKETA JASANGARRIA ETA BIDEZKOA EGITEKO IRIZPIDEAK ETA ARAUAK ESKAITZEN DITU EKOLOGISMOAK (MUGIMENDU SOZIAL PLURALA), ETA ALDAKETAK PROPOSATZEN DITU PRODUKZIO- ETA KONTSUMO-EREDUAN

Mugimendu ekologistak ez ezik, beste hainbatek ere kritikatu izan du gizarte industrialaren norabidea. Erromako Klubak (FIATen jabe den Agnelli familiaren inguruko erakunde zientifiko-ekonomikoa) hazkundearen mugei buruzko kezka plazaratu zuenean (Meadows txostena -1972-, Mesa-



rovic-1974-...), honako honetaz ari zen ohar-tarazten mundua: oker dabiltza indar produktiboen mugarik gabeko garapenean sinesten dutenak. Bat zetozen uste horretan (garapenak ez du mugarik) Ekialdeko eta Mendebaldeko agintariak, sozialismo burokratiko eta demokrazia liberalak. Erromako Klubaren abisua bazterrera utzi eta mespretxatu egin zuten agintariek, aurrerapen teknologikoari esker lehengai-erreserba handiak aurkitu baitziren. Handik hogeit bat urtera, 1990eko hamarkadaren hasieran, beste txosten bat plazaratu zuen Erromako Klubak: *Lehen iraultza globala*. Hona zer proposatzen zuen txostenak: alde batera uztea ideologia politiko eta sozial guztiak, eta intelektualen (ekoteknokratak) esku uztea munduaren gidaritza, garapen jasangarriaren bidean jar zezaten. Zenbait galdera eragiten dizkigu proposamenak: bidezkoa ote eredu hori? Demokratikoa ote? Askatasun indibidual eta kolektiborik izango genuke, edo desberdintasun sozialean, aristokrazia ekologista baten despotismoan biziko ginateke? Izan ere, ekofaxismoa edo autoritarismo ekologikoa sortzea ere gerta liteke, oraingoz balizko zerak baino ez diren arren. Ingurumenari buruzko aldaketa-proposamenak egiten dituen bakarra mugimendu ekologista ez dela ohar-tzeko, behintzat, baliagarri zaizkigu.

Bestalde, nago kazetaritza 'horiak' nahita nahastu dituela mugimendu ekologista

(kolore askotakoa) eta alderdi berdeak. Badituzte hainbat kidekotasun batak eta bestek, baina inolaz ere ez dira gauza bera, nahiz eta komunikabideek halakotzat agerrarazi eta, zoritxarrez, halakotzat eduki herritar gehienek.

Mugimendu berdea –alde batera utzirik haren erakundeak, ekimenak, elkarteak eta kanpainak– nahiko berria da. Kritika zorrotza egin die mugimenduak gizakiaren naturarekiko ustezko nagusitasunari, zientziakeria teknokratikoari eta etengabeko hazkunde ekonomikoari, kapitalismoaren urrezko arauari alegia. Mugimendu hartatik sortu ziren alderdi berdeak, berriz, beste era bateko erakundeak dira, bestelako helburuak eta interesak dituzte, bestelako egitura eta antolakuntza, guztiz zilegiak badira ere. Alderdiek badute eginkizun jakin bat, politika instituzionalari lotua; mugimenduek, berriz, beste erritmo eta jardura batzuk dituzte.

Nolanahi dela ere, badira mugimendu ekologistan adostasun-guneak (biodibertsitatearen eta jasangarritasunaren alde egin beharra, naturaren mugak aintzat hartu beharra, badaezpadakotasun-printzipioa...), baita desadostasunekoak ere, era askotako jendea baitabil ekologismoan. Ideologiari dagokionez, badira talde ekofeministak eta kontserbazionistak, etnoekologistak, ekosozialistak eta biozentrastak, batzuk aipatzearren.



MUGIMENDU EKOLOGISTAKO ADOSTASUN- ETA DESADOSTASUN-GUNEAK

ADOSTASUNAK	DESADOSTASUNAK
Biodibertsitatearen alde egin beharra	Superpopulazioa
Naturaren mugak aintzat hartu beharra	Erreformismoa edo erradikalismoa
Jasangarritasunaren beharra	Merkatuaren pizgarriak
Badaezpadakotasun-printzipioa	bio/antropozentrismoa
Demokrazia parte-hartzailea	Alderdi berdeak
Zientziarekiko mesfidantza	Natuaren eta gizartearen arteko harremana

Korronte batzuek –adibidez, Deep Ecology (Ekologia sakona)– izaki bizidun guztien arteko berdintasuna aldarrikatzen dute, eta ez dute onartzen gizakiok badugunik animaliek baino eskubide gehiagorik. Korronte horren ustez, gizartea biosferako azpisistema edo zati bat da, baina ez fauna edo floraren gainetik dagoena.

Eskuinerago joz gero, korronte sozial-darwinistak ere badira, oso minoritarioak. Munduko apartheid-sistema justifikatu egiten dute korronte horiek: Hegoaldekoen pobrezia bere nagikeriaren ondorio omen; Iparraldekoen eskubide eta aberastasuna, berriz, garapen *adimentsuagoaren* emaitza.

Kontrako muturrean ditugu, aldiz, hau diotenak: natura eta gizartea egitate guztiz ezberdinak dira, bereiziak eta elkarrekin ez nahastu beharrekoak. Korronte horien iritziz, naturak baditu bere legeak; gizakiok,

berriz, erruki gabe hondatu ditugu ekosistemak azken bi mende eta erdian, zibilizazio industrialaren aroan alegia. Beraz, ingurune naturalarekiko errespetu-mugaren batzuk jarri beharra omen daukagu. Ekologismo kontserbazionista hori izan zen lehenbiziko mugimendu berdea, eta jarraitzaile ugari ditu Mendebaldeko herrialde industrializatuetan. Gizakion jarduera suntsitzaitetik naturgune batzuk bereiztea eta babestea du helburu korronte horrek. Nazioarteko hainbat erakunderen inguruan antolatutako *lobby* o presio-taldeak ere badira korronte horretan, ekologiaren ‘tarta’ pusketaren bat bereganatzeko asmoz sortuak. Izan ere, natura ere merkatuaren eta diruaren menpe dago, eta interes handiak dabil-tza hor ere jokoan.

Ingurumenari buruzko bi ikuspegi horiez gain –ekologia biozentrikoa, espirituala edo



sakona, batetik; ingurumenzaletasuna edo kontserbazionismoa, bestetik–, hor dugu ekologia politikoa (ekologismo soziala deitzen diote beste batzuek). Natura eta gizartea uztartzea, ez bata bestetik bereiztea, du helburu azken ikuspegi horrek. Ekologismo-mota horrek ez dio balio eta eskubide berezirik aitortzen naturari; uste du, bestalde, gizartea eta haren harremanak ere lege naturalen menpekoak direla. Azkenik, krisi ekologikoa gainditzeko bidezko sistema soziala eraiki behar dela uste du ekologismo-mota horrek.

Euskal Herriko mugimendu ekologistan diharduten erakunde eta talde gehienak ekologia sozial eta politikoaren alorrekoak dira, hots, gure ingurumenarekiko harremanetan hainbat gauza aldatu nahi dituztenak baina, aldi berean, giza harremanak erabat aldatuz. Hori dela eta, errazagoa da –ideologiari dagokionez behintzat– proposamen ekosindikalistak zehaztea.

Bistakoak dira hemengo mugimendu ekologistaren alderdi antikapitalistak, bai diskurtsoari bai jarrerari dagokienez. Hortxe dago, hain zuzen, langile-mugimenduekin eta sindikatuekin kanpaina bateratuak eratzeko aukera. Bizirik dago Euskal Herriko ekologismoan berdintasun eta justizia sozialaren aldeko jarrera, baita beste mugimendu eta sektore sozial batzuekiko lotura ere. Horra, bada, mugimendu sindikalareki-

ko harremanak eta aliantzak sendotzeko bidea.

SINDIKALISMOAREN BIDEGURUTZEA: LANGILE PRIBILEGIATUEN BABESLE EDO NEOLIBERALISMOAREN AURKAKO ALDAKETA SOZIOPOLITIKOAREN BULTZATZAILA IZATEA

Manuel Escudero pentsalari sozialdemokratak zioenez (El País, 1992ko maiatzak 22) “mugimendu sozial berrien ezaugarri berberak dituzte sindikatuak gaur egun, aldeko eta aurkako alderdi berberak, eta, haiei bezala, ez dago igartzerik sindikatuak ere nondik nora joko duten: gerta liteke herrialde aurreratuen tribalismoa eta zatiketa bultzatzea, edo, aitzitik, planteamendu politiko berritzaile batekiko aliantza egitea, demokraziaren bertuteak, legitimotasuna eta prozedura publikoak berrezartzeko helburuarekin ”.

Azkeneko hiru hamarkada hauetan lan-alorrean eta sektore zein jarduera produktiboetan izan diren aldaketak direla eta, arras aldatu da sindikalismoaren barne- eta kanpo-ikuspegia. Hori dela eta, hautatu beharra daukate sindikatuak: Estatuarekiko independente izan, ala haren partaide bihurtu, elkarrekiko duten mendekotasunagatik.



Greba orokor baten bezperan esan zuen Manuel Vázquez Montalbán idazleak langile-mugimendua dela “egiazki existitzen den” mugimendu soziala, krisian egon arren sendoa eta indartsua baita, gai delako gobernu baten politika ekonomikoaren aurka herri oso bat altxarazteko. Zer beste indar sozialek egin dezake hori? Langile-mugimenduaren indarra eta presio politikoa egiteko ahalmena adierazten du horrek.

Alabaina, Mendebaldeko gizarte ‘aurrerratuak’ deritzenetan ingurumen-arazoei hartu duten garrantzi soziala ikusirik, zenbaitek dio langile-sindikatuaren interesak eta helburuak ez direla unibertsalak, alegia, burgesiak baino jende gehiagoren interesak defendatu arren sindikatuak, mugimendu ekobakezaleek baino askoz gutxiagorena defendatzen dutela. Johan Galtung iker-tzaileak mugimendu berdeaz eginiko azterketa soziohistorikoak dioenez, langileriare-nak baino interes orokorrago eta publikoa-goak defendatzen dituzte ekologistek. Galtungen iritziz, duela bi mende, gizarteko sektore atzerakoienekin aliatu zen burgesia, bere aldarrikapen demokratikoak Europako gizartearen gehiengoari hel ez zakizkion. Geroago, bi mundu gerraren ondoren, Mendebaldeko langileriak hitzarmena egin zuen burgesiarekin eta Estatuarekin. Hazkunde ekonomiko eta oparo-

aldi handiko garai haietan langileen egoera hobetzea zuen helburu hitzarmen hark. Hala sortu zen Estatu Soziala deritzona, edo Ongizatearen Gizartea.

Hobekuntza nabarmenak lortu ditu Mendebaldeko langileriak azken 40 urteotan, bai laneko bai gizarteko kondizioei dagokienez. Elite ekonomikoek kontraerasoari ekin eta irabaziak areagotzeko pribatizazioak eta desarautzeak, enpresen lekualdatzea eta iraizpen (despido) librea, aldi baterako kontratazioak eta pizgarri fiskalak eskatu dituztenean, ordea, mugatua izan da sindikatuaren erantzuna. Askoren iritziz, herritarren interes orokorren alde ez dute egin sindikatuak, gizartearen zati jakin baten alde baizik.

Hori dela eta, kritika hau egin izan zaie sindikatuari: bere afiliatuen interesak indar sozial autonomo batenak bezala kudeatu dituztela azken hamarkada hauetan, estatu-administrazioarekin eta patronalarekin lehiatuz. Kritika horren arabera, Ongizate Estatuaren partaide bilakatu dira sindikatuak, hitzarmen sozialaren hirugarren hanka. Egonkortasun soziala eta politikoa ekarri ditu hitzarmen edo kontzertazio horrek, baina ez ditu ahortzi behar talde sozial baztertuenak –emakumeak, gazteak eta adineko jendea, bereziki–, zeren eta, bestela, zabaldu egingo baita uste hau: sin-



dikatuak beren interesak, ez gizarte osoarenak, babesten dituzte.

Bistakoa da sindikatu batzuek beren interes partikularrak zaintzen dituztela, ez 'klase-interesak', edo haien 'langileriak' ezaugarri jakin batzuk badituela: gizonezkoak, arraza zurikoak, profesionalak... Sindikatu horiekin alderatuta, ordea, badira immigranteak, emakumeak eta gazteak afiliatzen, antolatzen eta babesten dituztenak ere. Bigarren horiek ditugu nazioarteko langile-mugimenduaren aldarrikapen historikoekin bat datozenak. Horra, bada, egungo sindikalismoaren bi joera nagusiak: korporatibismoa, batetik; sindikalismo sozial eta solidarioa, bestetik.

**KRISI EKOLOGIKOARI AURRE
EGITEKO, INTERES BERBERAK
DITUZTEN ALIATU ASKO ELKARTU
BEHAR DIRA. ERABERRITU BEHARRA
DAUKATE BAI SINDIKALISMOAK BAI
EKOLOGISMOAK EUSKAL
GIZARTEARI ALTERNATIBA
SINESGARRIAK ESKAINTZEKO**

Sindikalistak eta ekologistak ez dira normalean elkarlanerako prest izaten, inertzia historikoa dela medio. Ez dute hizkuntza berbera erabiltzen, ez dute ikuspegi berberaz aztertzen gizartearen konplexutasuna. Krisi ekologikoari eta sozialari aurre egite-

ko, ordea, prozesuaren amaiera kontrolatzeari utzi eta funtzionamendu zirkularrari ekin beharko diote, hau da, poluzioaren eta enpresen irabazien banaketari begiratu beharrean produkzio- eta erabakitze-prozesuak demokratizatzeari eta eraberritzeari ekin behar diote. Izan ere, prozesuaren amaieran nolabaiteko hobekuntza lortzeak (poluzioa gutxitzea, errenta hobeto banatzea...) ez du bermatzen ez ingurumenaren ez gizartearen jasangarritasuna.

Helburuen eta bitartekoen arteko eztabaidan gabiltza, bada, berriro ere. Eztabaida zehazteak, agian, argibideren bat ekarriko dio auzi horri.

Gaur egun, geure auto pribatuan joan eta etortzen gara lanetik soldatapeko langile gehien-gehienok. Ibiltzeko askatasunaren eta nolabaiteko estatus sozialaren ikurtzat saldu izan digute auto pribatua erabiltzea. Ordea, arazo larriak eragiten ditu jokabide horrek (zirkulazio motela, aparkatzeko lekurik eza, kongestioa, zaratak, airearen poluzioa, istripuak, azpiegitura berrien premia...). Zerrenda hori are gehiago luza genezake eta, azkenik, gure buruari galdetu ea merezi duen norberaren autoan lanea joate horrek.

Garraioa da, izan ere, Euskal Herriko hiri handi eta ez hain handietako ingurumen- eta gizarte-arazo nagusia. Urteak dira hainbat eragile sozialek (ekologistak, sindikalis-



tak, baserritarrek, auzo-elkarteak, kontsumitzaileak...) azpiegiturak (autobideak eta saihesbideak, AHT, makrozentro komertzialak, superportuak, aireportuak) geldiarazteko edo bertan behera uzteko eskatzen ari zaizkiela trafiko- eta garraio-arduradunei, zirkulazioa berrantolatu eta mugikortasun jasangarriari ekiteko. Proiektu horien aurka dauden udalek eta mankomunitateek, ordea, ez dute foru-aldundien eta gobernu autonomikoen babesik. Diputazioek eta gobernuek nahiago dute orain arteko eskizofreniari eutsi: batetik, mugikortasun

jasangarria aldarrikatu; bestetik, arazoa konpondu beharrean larriagotzen duten azpiegiturak egiten jarraitu.

Datuek dioskutenez, gero eta distantzia luzeagoak egiten ditugu etxetik lanera joateko. Bigarren taulak ikusiko duzuenek, hamarkada baten buruan (1989-99), EAEko langileen % 14,5ek bost kilometrotik gora egin behar izaten dituzte lantokira joateko. Datu horrek ez du adierazten garapen sozioekonomikoaren hobetzea, baizik eta mugikortasunaren hazkunde jasanezina.

2. Taula. Lanera joateko distantzien bilakaera EAEn
(guztizko herritarren %)

Distantzia (metroak)	1989	1999	1988tik 1999rako aldea
<100	8,74	5,65	-35,41 %
100-499	9,06	7,68	-15,19 %
500-999	9,51	7,82	-17,69 %
1.000-4.999	38,71	35,29	-8,84 %
5.000-9.999	13,97	13,08	-6,31 %
10.000-29.999	16,11	24,74	53,50 %
3.0000-4.9999	2,57	3,47	34,99 %
>50.000	1,34	2,27	70,20 %

Iturria: Josefran Cid (2004) eta Bizi Kondizioei buruzko Inkesta, 1989 eta 1999. Eustat.



Winfried Wolfek artikulu interesgarri batean (*Automobilaren gizartea: irteerarik gabeko bidea*) dioenez, konstante iraun zuen Mendebaldeko gizarteetan oinarrizko mugikortasun-premiak asetzeko garraio-mugimenduen baturak (gutxi asko, 1.900 mugimendu edo joan-etorri herritar bakoitzeko, lana, erosketak, aisia, erosketak, irakaskuntza eta oporrak kontuan hartuta) XX. mende osoan zehar, bai gizartea *automobilizatu* aurretik bai horren ondoren. Beraz, ez da aldatu joan-etorrien kopurua, baizik eta horiek egiteko ibilitako kilometro-kopurua, aurreko taulan ikusi dugunez. Diferentzia horren eragile nagusiak bi dira: hiri eta auzoetatik urrun eraikitako zentro komertzial handiak eta industrialdeak. Lanera eta erosketak egitera norberaren autoan joan behar horretaz badute zer esanik sindikatuek, bai enplegu gehiago sortzeko bai langileen bizi-kalitatea hobetzeko.

Ekologikoagoak egin dira sindikatuak eta haien nazioarteko erakundeak azken hamarkada honetan. Europako Batasunean, Maastrichteko Itunaren ondoren hasi ziren erakunde ekologista nagusien (Greenpeace, WWF, Amigos de la Tierra, European Environmental Bureau, Birdlife, Transport & Environment eta Klimaren Ekimen Sarea) eta Europako sindikatu-federazioen arteko harremanak. Bai ekologistek bai sindikatuek bazuten zer esana Europako Itun

berriaz, ingurumenari eta alor sozialari zegokienez. Orduz geroztik, elkarrekin protestaka ikusi izan ditugu sindikatuak eta ekologistak, beste zenbait mugimendurekin batera, Europako Batasunaren goi-bilera guztietan, horietan erabakitzen baitituzte EBko ministroek (lehen 15, orain 25) bere planak.

Antzekorik gertatu da mundu osoan ere; adibidez, NBEko Garapen Jasangarrirako Kontseiluan, non beren ikuspegiak eta kritikak azaldu zituzten sindikatuek, ekologistek, indigenen ordezkariak, emakumeek eta tokian tokiko administrazioek. Rio de Janeiroko goi-bileraz geroztik (1992ko ekaina) seriotasun eta arreta handiagoz ekin die sindikalismoak (oro har) ingurumen-gaiei; Johannesburgoko goi-bilera antzu hartan (2002ko abuztua), berriz, nabarmena izan zen sindikatuen ordezkartza eta haien proposamen-kopurua.

Euskal Herrian, berriz, Euskal Foro Sozialak 2003an abiarazitako prozesuan hainbat eztabaida eta proposamen entzun ditugu. Berri ona da, berez, Foro horren sorrera, baina mugimendu sozialek, elkar ezagutu eta entzuteaz gain, besterik ere egin behar lukete: jarduera eta ekintza-eremu bateratuak bultzatu, etengabeko eztabaidak sustatu, programa erkideak abiapuntu harturik. A. Machadok zioen legez, ibilian egiten da bidea. Mugimendu bakoitzak baditu

bere inertziak, eta oztopatu egiten dute elkarlana; hala eta guztiz ere, sortuko eta hedatuko balitz sindikatuen eta erakunde ekologisten arteko lankidetzarik (txikiak eta unean unekoak izanik ere), berehala nabaritutuko litzateke horren oihartzuna.

Garraioaren alorrean, oso mesedegarria litzateke garraiolarien eta ekologisten, erabiltzaileen eta auzo-elkarteen lankidetzan norabide-aldaketa eragiteko, interes eta jarduera ugari gurutzatzen baitira sektore horretan.

Lan-kondizioak hobetzeko ez ezik, oso lagungarri izan dakioke sindikatua langileari bizi-kalitatea hobetzeko ere, automobilarrekiko eguneroko mendekotasuna murriztuz, garraio publikoa sustatuz eta etxetik gertuago lan egiteko aukera emanez. Langilearen eta gizarte osoaren mesedera-ko izango litzateke aldaketa hori.

ENPLEGU GEHIAGO (ETA HOBEAK) EKARRIKO DITU INDUSTRIAREN BIRMOLDAKETA EKOLOGIKOAK

Bizkaiko Labe Garaiak –euskal industriaren sinboloa eta enpresa nagusia izana– ez zituzten ekologisten presioek itxi; mende bateko funtzionamenduak eragindako pasibo ekologikoak ez zuen zerikusirik izan enpresaren akaberarekin. Hogeia aldiz langi-

le gutxiagoko altzairutegi trinko batek Labe Garaiek adina altzairu sortzen zuten hura itxi eta gutxira. Beste behin ere, kapitalaren eta teknologiaren bategiteak lanpostugalera ekarri zuen eta euskal industriaren sinboloa desegin zuen, ez Francok ez atzerriko bidean zen Eusko Jaurlaritzak lortu ez zutena alegia. Gaur egun, ordea, kinka larrian dabil Bizkaiko Altzairutegi Trinkoa, lanean hasi zela bost urte besterik igaro ez diren honetan, globalizazioaren eta lehiaren eragina dela medio.

Adibide xume bat besterik ez dugu Bizkaiko altzairugintzarena, garbi erakusten diguna zein diren ekonomiaren arauak eta zein erraz onartzen dituen iritzi publikoak enpresa-ixte horiek. Badirudi inor ez dela ausartzen merkatuaren lege bihozgabei aurre egitera; badirudi urrutiko jainko ahalguztiduna dugula merkatua, gure ahalmenen oso gainetik erabakiak hartzen dituen.

Gogoan dut batxilergoko ikasle nintzela, 1969an, Bizkaiko Labe Garaien Sestaoko lantegia ikustera eraman gintuela 5. ikasturteko ikasleok Kimikako irakasleak. Han esan zigutenez, labe haietatik irteten zen poluzioa konpontzeko iragazki oso garestiak jarri behar omen zituzten, langileen eta inguruko herritarren osasunari kalterik ez egitearren. Gaur egun, askoz ere ke industrial gutxiago dago Bilboko Ezkerraldean,



eta, batez ere, askoz ere langile gutxiago, ingurumenari eginiko kalteek hor jarraitzen duten arren, airean eta itsasadarrean.

Duela urte batzuk, ingurumen-cluster bat eratu zuten Euskal Herrian hainbat enpresak, ikusirik ingurumena zaintzea ere negozio ona zela, batez ere hondakinen kudeaketa. Gero eta hondakin gehiago sortzen du, izan ere, gure gizarteak, bai industrialak bai hirietakoak. Nonahi ezin dira bota, ordea, hondakin horiek, garai batean ez bezala. Jaurlearitzak dioskunez, oso ongi kudeatzen dira hemen hondakinak. Merkantzia direnez, balorizatu egiten dira, eta kanon garestia ordaintzen haien tratamenduagatik. Eta lanpostuak sortzen dira hondakinak jaso, biltegiratu, birziklatu, geldotu edo errausteko. Egia da: ingurumenak enplegua sortzen du.

Kontua da, baina, hondakinak negozio bihurtu dituztenez, helburua ez dela jada haiek minimizatu edo murriztea, alderantzizkoa baizik: inportatu egiten ditugu. Euskal Herriak puntako teknologia du hondakinak tratatzeko, baina hondakinen kudeaketa premia izatetik negozio izatera pasatu da, hots, hondakinen biltoki bihurtu nahi dute batzuek gure herria. Deigarria da, adibidez, teknoekologisten jarrera: diotenez, konposta egiteak ez du hemen bideragarritasun ekonomikorik, ez baitago nori saldurik (ez etxean, ez inguruan) gure hon-

dakin organikoekin egindako ongarria edo konposta. Alabaina, onartu eta justifikatu egiten dute teknoekologistek hondakin toxiko eta arriskutsuen inportazioa. Hondakin horiek hobeto omen daude ondo biltegiratuta eta tratatuta –diote– enpresaburu maltzurren eskuetan baino. “Euskal Herrian tratamendu-enpresak baditugunez, sor ditzagun lanpostuak eta irabaz dezagun dirua”, horra teknoekologisten filosofia.

Ez zuten, ez, filosofia hori erabili Atxarten, Urkiolako parke naturalean zeuden harrobietan. Mañariko harrobiak, magia bidez edo, parke naturaletik kanpo utzi zituzten. Ekologistak eta eskalatzaileak saiatu ziren harrobietako langileen lanpostuak salbatzen, parkearen ekonomiak berak beharko zituen zerbitzuetara bideratuz langileak, hau da, birmoldaketa ez-traumatikoa eginez. Apenas egin zitzairen kasurik proposamen haiei, Parkeko patronatuak plazaratutako soluziobideei. Gainerako eragile soziopolitikoek ere ez zuten ia deusik egin harrobietako langileen etorkizuna argitzeko. Administrazioaren, ekologisten eta sindikatuen arteko elkarlan eredugarria izan zitekeen hura erabateko porrota izan zen azkenik. Auzi hartako alderdirik ahulena, harrobiko langileak, ez zuen azkenik lanik izan ez harrobian ez parkean.



Aipatu ditugun adibideek erakusten dituztenez, ez dago inolaz ere frogatuta batez ere raezinak direnik ingurumena eta enplegua.

Laneko segurtasuna eta osasuna garestiak dira eta jaitsi egiten dute irabazi-marjina; hala ere, ondo asko dakigu denok merkeagoa dela, epe luzera, prebentzio-lana sendatzea baino. Laneko istripuak ditugu horren adibiderik garbiena.

Joaquín Araujo kazetari eta ekologista ezagunak dioenez, BPGren %15 ingurumen-inbertsiotarako erabiltzea eskatuko luke gizarte jasangarrirako trantsizioa egi-teak (energia-alorrean, garraioan, produkzio garbian, enpresa poluitzaileak ixten...). Ingurumen-gailetan puntako diren herrialdeetan, Eskandinabiakoetan, % 1,5 gastatzen dute horretan, hots, behar dena baino hamar aldiz gutxiago.

Ekologiak sor lezakeen lanpostu-kopuruari buruz badira hainbat kalkulu, baikorrek batzuk, ez horrenbeste beste batzuk. Alor horretako lanpostuek lan-intentsitate handiagoa eskatzen dute, eta kapital- eta energia-intentsitate txikiagoa. Jarduera ekonomikoaren sektore nagusiei eragiten diete, gainera, lanpostu horiek. Jorge Riechmannek dioenez, ordea, lanpostu-galera ere ekar lezake ekimen ekologikoek, hazkunde ekonomikoa eta automobil-trafikoak murriztu egingo luketelako, zenbait jarduera merkatutik kanpo utziko lituzketelako,

zenbait produkzio-sektore desagertu egingo liratekeelako (energia nuklearraren ekoizpena, klorogintza, armagintza, turismo jasanezina ...).

Hortaz, ez da lan erraza jasangarritasun ekologikoranzko birmoldaketa horren kontuak egitea; are zailagoa da, ordea, bizi garen Lehen Mundu honetako herritarrak konbentzitzea ekonomia ekologikoa dela biderik egokiena.

JENDE ETA ENPLEGU ASKO DITU SOBRAN KAPITALISMO BERDEAK

Aldaketa izugarria sumatzen da XXI. mende honen hasieran langileen seme-alaben etorkizuna dela eta. Arriskuan daude neska-mutil horien enplegu-esperantzak, baita egoera sozioekonomikoa hobetzekoak ere. Izan ere, ikasketak ongi amaitzeak ere ez die bermatuko bizimodu independente eta duina izango dutenik. Gazte-riaren proportzio handiari eragiten dio arrisku horrek, eta gurasoen kontura luzaro bizitzera behartzen ditu gazteak. Gizartearen gainbehera eta krisiaren adierazle da fenomeno hori. Enplegu iraunkorra eta etxebizitza izatea aurreko belaunaldiak baino askoz gehiago kostatuko zaie egungo eta etorkizuneko gazteei.



Horra kontraesana: egunero neurrigabe-ko kontsumora bultzatzen dituzten gazte horiek arazo larriak dituzte Ongizatearen Estatuko onurez baliatzeko (haien guraso eta aiton-amonen borroka sindikalari esker lortutako Ongizate Estatuaz, hain justu, Europako inguru hauetara berandu eta hala moduz iritsi bazen ere).

Aitzitik, urte luzez ekosistemak hondatzen eta lehengaiak eta energia xahutzen aritu diren hainbat enpresa berdez jantzi zaizkigu orain, eta egindako gehiegikeriak ezkutatzearren halako erakusleho ekologikoa eratu dute. Jakina, 'berdetze' horren helburua ez da lanpostu gehiago sortzea, negozio handiagoak egitea baizik. Gure inguruko multinazional baten adibidea (Iberdrolarena) dugu argiena.

Gutxiago kontsumitzen eta poluitzen dute autoak naturara inguratzeko, turismo ekologikoa, energia berdea, era guztietako produktu birziklagarriak... horra enpresa multinazionalen publizitate-amuak. Aspal-ditxo ikasi zuten konpainia horiek emaitza onak dakartzala *greenwash* deritzonak (itxura ekologikoa ematea): kontsumitzaileak uste du halako produktu 'berdea' bada kalte txikiagoa egingo diola ingurumenari, hobeto zainduko duela natura.

Berde koloreko pintura-geruza bat ez da aski, baina, naturari eta herritarren osasu-

nari nahiz bizimoduari egiten zaizkien etengabeko erasoak estaltzeko.

Herri industrialia izan da Euskal Herria, baina birmoldaketa basatia zela medio ia erabat desagertu ziren gure industria siderometalurgikoa eta ontziolak. Bestalde, hainbat zentral nuklear eraikitzeke proiektuak abiarazi ziren Euskal Herrian 1970eko hamarkadan. Gogor erantzun zien euskal gizarteak asmo haiei. Hogeita hamar urte geroago, hainbat energia-lantegi eraiki nahi dituzte, hobekuntza teknologikoa eta Europako Batasuneko energia-merkatuaren liberalizazioaz baliaturik, gas naturalaren bidez energia elektrikoa sortzeko. Arrisku larrian jar dezakete energia-instalazio horiek gure ingurumena.

Hankaz gora bota dituzte proiektu horiek Eusko Jaurlaritzaren (3E-2005) eta Nafarroako Gobernuaren (1996) planifikazio energetikoak. Hego Euskal Herriak behar duen elektrizitate ia guztia (% 82 EAE; % 100 Nafarroan) bertan ekoiztea aurreikusten zuten plan haiek, eta politika energetiko berri baten adierazle ziren.

EAEko eta Nafarroako administrazioek, ordea, burua makurtu egin zuten energia-sektoreko multinazionalen aurrean, Iberdrolaren aurrean bereziki. Hona hemen jokabide horren ondorioak: EAEk eta Nafarroak ezingo dituzte bete klima-aldaketa aurre egiteko nazioarteko konpromisoak



(Kyotoko Protokoloak dioenez, 1990ko emisioekin alderatuta %15 CO₂ gehiago isuri ahal du Espainiak) eta, gainera, kanpo-ko merkatuetarako baliabideak eta produkzio elektrikoa inportatu beharko dituzte. Kalte handia ekarriko dio horrek guztiak gure ingurumenari: airearen eta uraren poluzioa, energia-aurrezpena alde batera uztea, bertako proiektu energetikoak bazterrera uztea. Nafarroan, gainera, bertan behera geratuko da energia-alorrean mundu osoan zegoen eredu aurreratuenetako bat.

Ezaugarri orografikoak eta demografikoak zirela eta, eskura zeukan Nafarroak bere energia elektrikoaren % 100 sortzeko ametsa, parke eolikoez, zentral hidrauliko txikiez, biomasaz eta eguzki-energia fotovoltaikoaz baliaturik. Ez zen amets zoro bat, gauzatzeko moduko proiektua baizik. Bertan behera geratu da, ordea: ziklo konbinatuko bi zentral eraiki dituzte Ebro ibaiaren ondoan. Ehun lanpostu besterik ez dituzte ekarri bi zentral horiek, baina energia berriztagarriko instalazio guztiek batera baino megawatt gehiago sortuko dituzte, metanoa errez.

PROIEKTUA	SUSTATZAILEA	POTENTZIA	CO ₂ -ren EMISIOAK
Petronor IGCC	Petronor	800 MW	6.000.000. Tona urtean
Bahia Bizkaia	Iberdola, Repsol, BP-Amoco, EVE	800 MW	2.600.000. Tona urtean
Santurtzi Z.K.	Iberdrola	375 MW	1.150.000. Tona urtean
Zabalgarbi	Vivendi, EVE, BBK	90 MW	675.000. Tona urtean
Boroa	ESB- Irlanda	800 MW	2.600.000. Tona urtean
Castejón	Iberdrola	800 MW	2.600.000. Tona urtean
Castejón	Hidrocantábrico	400 MW	1.300.000. Tona urtean

Gure enpresa multinazionalak egoitza nagusia beste norabait eramateko mehatxu zentralista dela eta protesta egin izan dute hemengo sindikatuek, enpleguaren kalitatean eta kantitatean eragin kaltegarria

izango lukeelako aldaketa horrek. Hemengo multinazionalen proiektu energetikoek ere nabarmen aldatuko dituzte bizi- eta lan-kondizioak: enplegu gutxi sortuko dute, kapital-mugimendu handiak eta arazo eko-



logiko larriak. Hala eta guztiz ere, Euskal Herriko sindikatuek eta eragile soziopolitikoek erantzun nahiko eskasa eman diote arazo horri, Zornotzako zentralaren kasuan izan ezik.

Iritzi publikoa halako itxura ekologista batekin (etengabe errepikatua, baina eskasa) engainatzeko ahalegina baino ez da 'energia berdearen' iruzurra, hau da, zentral hidroelektriko handiak ingurumeneko mesedegarritzat azalarazteko saioa. Itoizko urtegiak sortuko dituen megawattak energia ekologiko, alternatibo eta berriztagarritzat saltzeko inongo arazorik ez lukete izango konpainia elektrikoek.

Horregatik, ekologisten eta sindikalisten erantzukizuna da estrategia horri aurre egitea eta ingurumeneko politika hoberentzat honako hau aldarrikatzea: energia aurrezte, tokian tokiko proiektu energetikoak sustatzea, eta eguzki-energia erabiltzea erregai fosilen orde. Martxan jartzen ari diren proiektuek (lehenxeago aipatu ditugun horiek) ez dute batere errazten aldaketa hori.

**EKOLOGISMOAREN ETA
SINDIKALISMOAREN ARTEKO
LANKIDETZA: SINDIKATUETAKO
LANEKO OSASUN SAILAREN ETA**

**ERAKUNDE EKOLOGISTETAKO
KANPO-HARREMANETAKO
ARDURADUNEN ARTEKO
HARREMAN ONA
BAINO ZERBAIT GEHIAGO**

Erandioko 1969ko gertakariak adibide eta abiapuntu egokia ditugu ekologismoaren eta sindikalismoaren arteko uztarketa hobeto ulertzeko. "Gasa kanpora!" oihukatzen zuten erandiotarrek, eguraldi txarreko egunetan arnasa hartzerik ez baitzegoen, inguruko industria kimikoak eta terminoak zirela eta. Euskal ekologismoaren sorrera-data ere bada 1969ko urria, han nabarmendu baitzen elkarri lotuta ibili ohi direla herritarren lan- eta bizi-kondizioak, eta batzuk bezain garrantzizkoak direla besteak.

Euskal Herrian, izan dira (eta badira) ekologisten eta sindikalisten arteko gatazkak, baina ez bereziki gogorrak. Normalean, administrazioari zuzentzen dizkio bere kexak mugimendu ekologistak, baita (gutxiagotan) enpresaburuei ere. Dena dela, sortzen dira tirabirak langileen eta ekologisten artean hirietan, industrian eta landa-eremuan. Dudarik gabe, gerora ere sortuko dira. Ikuspegi ezkertiar klasikoak dioenez, gehiago arduratzen dira ekologistak naturaz, animaliez eta landareez giza duintasunaz baino. Ekologistek diote, bestalde, enpleguari eustea baino zerbaite gehiago



dela giza duintasuna (iraizpen libreko garai hauetan enpleguari eustea ere gutxi ez den arren).

Euskal gizartean dagoen lanaren ikuspegi sakratu hori zalantzan jartzeko garaia bada, baliabideak alferrik gastatzen eta ondasun gehiegi sortzen dituen gizarte batean bizi baikara. Bada garaia ezetz esateko hainbat produkzio- eta negozio-motari (armagintzari, zenbait harrobiri, erraustegiei, saltoki handiei...), balio insolidario eta indibidualistak bultzatzen baitituzte, eta haien ordeztu beste produktu edo zerbitzu batzuk aldarrikatzekoa. Batzuei hainbeste etekin sortuko ez dieten arren, osasungarriagoak izango dira produktu eta zerbitzu alternatibo horiek bai langileentzat bai gizarte osoarentzat.

Beste zenbait lekutan ez bezala, jarrera eta konpromiso soziopolitiko sakonak izan ditu beti Euskal Herriko mugimendu ekologistak, antikapitalista izan da (eta da) eta kanpaina nagusiak gehiago izaten dira hirietako arazoei buruzkoak eta desarrollismoaren aurkakoak naturguneak babestekoak baino. Hori dela eta, kutsu antiinstituzional nabarmena du hemengo mugimendu ekologistak. Ez dira ezaugarri txarrak sindikatuekin harremanetan jartzeko, baina ez diote askorik laguntzen ekologismoari bere proposamenak gizarteratzen, protesta egiteko ez bada. Zoritxarrez, talde txiki ba-

tzuen kontua baino ez dira jarduera ekologistak edo alternatiboak.

Oro har, begi onez ikusten dute langileek eta sindikatuek ekologismoa, baina utopikoa iruditzen zaie, lekuz kanpoko kontua. Iruditzen zaie ekologismoa ez dela gauza gizarte osoarentzat alternatiba orokorrak eta bideragarriak aurkezteko. Ez zaie arrazoirik falta.

Euskal sindikalismoak –daukan indarra eta hedadura soziala kontuan ikusirik– lagun diezaioke ekologismoari lokalismotik irten, enplegua sortu eta osasunerako mesedegarriak diren alternatiba praktiko batzuk gauzatzen. Sindikalistek eta ekologistek elkar ezagutzeko lehenbiziko urratsak (zailenak) eginak daude jada. Proiektu ekosindikalei buruzko lana sakondu egin behar da, eta langile-batzordeetara bideratu behar da bereziki, proposamen espezifikokoak eginez (ingurumenari buruzko legedia, produkzio garbiaren alde egitea, hondakin toxikorik ez isurtzea, energia aurrezte, garraio publikoa (kolektiboa, motorizatu gabea...) erabiltzea...

Baserritarren sindikatuekin eta nekazartza-sektorearekin (gizartearen % 3,7 besterik ez, eta desagertzeko arrisku larrian) harreman hobeak eta elkarlan sakonagoa ditu hemengo ekologismoak industriako sindikalismoarekin baino. Industria ere



beheraka ari den sektorea da, baina hor ari dira langileen % 37, eta hor dago euskal sindikalismoarekin adar sendoena. Horra, bada, ekologisten desafioa: sektore industrialeko sindikalismoarekin harremanak estutzea.

Boris Frankelek *Utopiko postindustrialak* obran zioenez, “Ezkerrak entzungor egiten badie ekofeministen eta ekosozialisten kritikei, kontserbadurismo politikoaren eta marjinazioaren bidea hartuko du. Mugimendu alternatiboak, berriz, desagertuko egingo dira langile-mugimenduaren indar politiko-ekonomikoa eta esperientzia bereganatzen ez badute, zanpatu edo irentsi egingo baitituzte indar politiko kontserbadoreek. Arrisku larria bihurtu dira indar kontserbadoreak mundu osorako”.

Kontserbadurismoak eta insolidaritateak atzeraka egin dezaten, ekonomia morala eta ekologia soziala dira bultzatu beharreko balioak. Postindustrialismoaren desafioei ekosindikalismoaren ikuspegitik ekinez gero, baliteke arrakastaren bat lortzea. Bide okerretik jotzea litzateke sindikalismoak produktibismo itsuari eustea, edo ekologismoak garapen jasangarria bakarrik aberatsentzat aldarrikatzea, naturaren eta gizartearen aurkakoak baitira jarrera biak. Badaukate elkarrekin zer egina ekologismoak eta sindikalismoak, badaukate elkarrengandik zer ikasia eta elkarlanean zertan ari-tua. Itxaropen-iturri izango litzateke Euskal Herriarentzat ekologismoaren eta sindikalismoaren arteko sinbiosia, eta mundu jasangarriagoa egiten lagunduko luke, inguru-menaren aldetik behintzat.



BIBLIOGRAFIA

- RENNER, M. (1994) *“El empleo en una economía sostenible”* Cuadernos Worldwatch. Bakeaz. Bilbo.
- BERMEJO, R. (1994) *“Equilibrio ecológico, crecimiento y empleo”* Cuadernos Bakeaz, 3. zenbakia. Bilbo.
- FRANKEL, B. (1990) *“Los utópicos post-industriales”*. Alfons El Magnánim argitaletxea. Valentzia.
- OFFE, C. (1988) *“Partidos políticos y movimientos sociales”* Sistema, Madril.
- FERNANDEZ BUEY, F. (1990) *“Programas sindicales, intereses obreros y reivindicaciones ecologistas en la lucha por un mundo habitable”* MIENTRAS TANTO, 41. zenbakia. Bartzelona.
- WOLF, W. (1996) *“La Sociedad del automóvil: Un callejón sin salida”* MIENTRAS TANTO, 61. zenbakia. 97-109 Bartzelona.
- RIECHMANN, J. eta beste. (1995) *“De la economía a la ecología”* Trotta eta 1 de Mayo Fundazioa, Madril.
- RIECHMANN, J. eta FERNANDEZ BUEY, F. (1998) *“Trabajar sin destruir. Trabajadores, sindicatos y ecologismo”* Ediciones HOAC. Madril.
- AA.VV. (1992) *“Manifestu Ecosozialista. Alternatiba berde baten alde Europan”*. Libros de la Catarata/Bakeaz. Bilbo.
- DE LA ROCA, F.; LERMA, I.; GARCIA, E. (1996) *“La participación de los trabajadores en la gestión medioambiental de las empresas”* Germania. Valentzia.



Oharrak

This image shows a single page of white paper with horizontal blue lines, resembling notebook paper. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There is no handwriting or other markings on the paper.

Oharrak

This image shows a full page of blank, lined paper. It features approximately 20 horizontal blue lines spaced evenly across the page, typical of notebook paper. The lines are thin and light blue, set against a plain white background. There is no handwriting or other markings on the page.